



TREBAKUNTZA 2012/12: ERDARAKADAK (II)

Udal idazki askotan erdarakadak sartzen dira; hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, espresioak eta abarrak euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo espresio jatorrak baztertuta. Aurreko hilabetean erdarakada batzuk ikusi genituen, eta hilabete honetan beste batzuk.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Idazkariak **bere iritzia** eman zuen hirigintza baimenei buruz.
2. * Udal langileek **greba bat** egin dute.
3. * Ez du **pena merezi** puntu hori deialdian sartzea.
4. * Bost hizkuntza **ezagutzen** ditu.
5. * **Ezagutzera eman** ditu hurrengo lau urteetarako ildo nagusiak.
6. * Beste barik, **agurtzen naiz**.
7. * Biharko bileran **ikusiko gara**.
8. * Realak galdu egin zuen, oso ondo **jolastu** arren.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Gaztelaniazko "su opinión" esamoldearen kalkoa da, baina berez euskarak ez du "bere" hori behar. Badakigu iritzia berea dena, ez beste inorena.

Ad. Idazkariak **iritzia** eman zuen hirigintza baimenei buruz.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

2. Hau ere gaztelaniazko "una huelga" espresioaren kalkoa da. *Bat zenbatzailea da, eta bi edo hiru-rengandik bereizteko erabili behar da; bestela, ez da beharrezkoa.*

Ad. *Udal langileek greba egin dute.*

Izan ere, testuinguru gehienetan, zentzugabea da adieraztea greba bat egin dutela, eta ez bi edo hiru.

3. "Pena" hori sobran dago euskaraz, merezi erabiltzen badugu.

Ad. **Ez du merezi** puntu hori deialdian sartzea

4. Gaztelaniazko "conocer" esateko, euskarak bi hitz ditu: ezagutu eta jakin. Askotan, *ezagutu* erabiltzen dugu *jakin*-en lekuan, gaztelaniaren eraginez.

Ad. *Bost hizkuntza dakizki / hitz egiten ditu.*

5. "Ezagutzera eman" esamoldea gaztelaniazko "dar a conocer" horren kalkoa da. Euskaraz badauzkagu modu jatorragoak gauza bera esateko:

Ad. *Hurrengo lau urteetarako ildo nagusiak jakinarazi* ditu.

6. Gaztelaniazko "me despido" espresioaren parekoa da "agurtzen naiz", euskaldun zahar batek sekula esango ez lukeena.

Ad. *Beste barik, agur/agurtzen zaitut.*

7. Hau ere gaztelaniazko "nos vemos" esamoldetik hartua.

Ad. *Biharko bileran ikusiko dugu elkar.*

8. Kirola denean, edo lehia adierazi nahi denean, euskaraz "jokatu" erabiltzen dugu (pilotan, futboleant, musean...), eta "jolastu" umek egiten dutenari deitzen diogu, adibidez, parkean jolastu.

Ad. *Realak galdu egin zuen, oso ondo jokatu arren.*

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99